Bertsoaroa 10:Maquetación 1 7/10/10 10:56 Página 1



**Jueves 21 de octubre, 20 h.**
Sala de los Institutos de la Plaza de la Cruz

## ETA TIRA ETA TUNBA
RECOPILACIÓN DE VERSOS DE LAS GUERRAS CARLISTAS
JOSEBA TAPIA

RECITAL MUSICAL

Joseba Tapia reune veintidos canciones de las guerras carlistas en su nuevo trabajo. Ha recopilado y musicado versos hechos tanto por los carlistas como por los liberales brindando al público un tesoro que hasta ahora estaba escondido. En esos viejos versos se puede encontrar de todo: humor agudo, crítica, arrepentimiento, ofensas, ironías... La música que ha creado para ellos tiene ecos de fanfarre. **Joseba Tapia** es uno de los mejores intérpretes y compositores de acordeón diatónico. Autodidacta, siendo muy joven forma parte del dúo 'Tapia eta Leturia' con el que gana el Campeonato de Trikitixa de Euskadi en 1985. Maestro e innovador, además del clásico duo de triki y pandero de sus comienzos, ha transitado por diferentes formatos musicales como el rock o el trío folk que formó junto a Ruper Ordorika y Bixente Martinez en 'Hiru Truku'. Ha colaborado con diferentes formaciones como Negu Gorriak y Flaco Jimenez, sin olvidar Zaldibobo, grupo liderado por él. Tras coincidir con el escritor Koldo Izagirre, comienza su andadura en solitario como compositor y cantante, que ofrece hasta el momento cinco trabajos de muy distinta naturaleza, entre ellos *Apoaren edertasuna* (1998) y *Agur Intxorta maite* (2001) editados ambos por Gaztelupeko Hotsak.

Joseba Tapia [trikitixa y voz]; Jokin Irungarai [percusión, jazban]; Ramontxo Vega [tuba], Mintxo Garaikoetxea [bonbardino]; Filipe aldako [trompeta] eta Alain Martineau [saxofón].

**Jueves 28 de octubre, 20 h.**
Sala de los Institutos de la Plaza de la Cruz

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS
SAIOA ALKAIZA
AITZOL BARANDIARAN
AIMAR KARRIKA
ALAIA MARTIN
IÑAKI ALEMAN
AGIN REZOLA

PRESENTA: HELIOS DEL SANTO

La buena salud de que goza hoy el bertsolarismo es fruto del trabajo realizado durante muchos años. En este renacimiento ha sido muy importante la participación de los jóvenes tanto bertsolaris como aficionados al verso. Tal y como ha quedado probado en el último campeonato, junto a bertsolaris que llevan ya mucho tiempo actuando, ha aparecido un grupo de jóvenes 'veteranos' que se han hecho un sitio en el escenario. Un continuo relevo generacional ha abierto camino al bertsolarismo del futuro. En esta actuación vamos a disfrutar con seis de esos jóvenes, son bertsolaris que aportan elementos de renovación a las formas tradicionales y que cantan al mundo actual desde perspectivas personales propias.



# BERTSOAROA 2010

**Jueves 4 de noviembre, 20 h.**
Sala de los Institutos de la Plaza de la Cruz

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS
AMETS ARZALLUS
ESTITXU AROZENA
JON MAIA
AITOR MENDILUZE
XABIER LEGARRETA
UNAI ITURRIAGA

PRESENTA: AINHOA ARANBURU

El año pasado el bertsolarismo vivió de forma muy especial la última edición del Campeonato General de bertsolaris que se organiza cada cuatro años. La final del campeonato celebrada en diciembre en el recinto del BEC, repleto de público, fue un auténtico acontecimiento cultural. Los ocho protagonistas de aquella final estarán en esta edición de Bertsoaroa repartidos en dos actuaciones; junto a ellos cuatro bertsolaris que participaron en la final del campeonato navarro de Lesaka.

**Martes 9 de noviembre, 20 h.**
Sala de Conferencias del Área de Cultura Ayuntamiento de Pamplona

## LA DEFENSA DE LAS BRUJAS DEL URUMEA EN EL TRIBUNAL DE PAMPLONA
PATZIKU PERURENA

CONFERENCIA EN EUSKERA
PRESENTA: KIKE DIEZ DE ULTZURRUN

El poeta leitzarra acaba de publicar un libro que pone en valor la cultura oral y popular: *Goizuetan bada gizon bat (En Goizueta hay un hombre).* Patziku ha centrado esta vez su trabajo de investigación en conocer qué es lo que hay detrás de ese personaje, Trabuko, que Mikel Laboa hizo famoso con su canción. Inició con ello un viaje enriquecedor que le ha hecho transitar por trazos de la historia cercana y del recuerdo popular fabulado de los hechos. El escritor disertará también sobre la riqueza de la cultura popular y traerá a colación auténticas joyas de la literatura oral que ha recogido al tratar el tema de la brujería. Las cantará y recitará, y disertará sobre el significado de los símbolos e imágenes contenidos en ellas.
**Patziku Perurena,** escritor nacido en Goizueta y residente en Leitza desde los 12 años nos ha dejado auténticas pequeñas joyas de la literatura en euskera, tal es el caso de su obra *Leitzako errege-erreginak* (1996). Con Patziku hemos aprendido multitud de detalles de la cultura y del pensamiento popular vasco. Indagando en la sabiduría de las gentes y escuchando las voces de nuestros mayores Perurena nos recuerda que las historias de ayer se repetirán en el futuro. Tras sus primeros pasos en la poesía –*Joannes d'Iraolaren poema bilduma* (1985) edo *Emily* (1987)–, obras de la talla de *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993) dieron medida de su verdadera talla de estudioso de la memoria popular. Es conocido también por su faceta de articulista y pensador, terreno en el que no rehuye la polémica. Son ejemplo de ello *Marasmus femeninus* (1993) o *Etorrerakoak* (1998). Sus últimos libros son *Ezer ez eta festa* (2006), *Dakiguna ikasten* (2007) y *Goizuetan bada gizon bat* (2010) punto de partida de esta conferencia. Utiliza un lenguaje rico, culto y popular al tiempo, de gran lirismo. Sin dar la espalda a temas de índole filosófica, el amor a la naturaleza y a la cultura popular destacan en su obra.

**Jueves 11 de noviembre, 20 h.**
Sala de los Institutos de la Plaza de la Cruz

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS
MAIALEN LUJANBIO
JULIO SOTO
SUSTRAI COLINA
OSKAR ESTANGA
AITOR SARRIEGI
ANDONI EGAÑA

PRESENTA: AINHOA ARANBURU

Bertsoaroa tendrá este año también un final de lujo con los finalistas del BEC y de Lesaka juntos en el mismo escenario. Entre los bertsolaris se encontrarán el jóven campeón de Navarra, el gran campeón de Zarautz y la primera mujer que ha ganado la txapela. Todos son bertsolaris de primerísimo nivel que, aparte del campeonato, han subido al escenario infinidad de veces. Muestra del bertsolarismo de hoy y de mañana, se trata de artistas de la palabra que saben hacer disfrutar al público.





# BERTSOAROA 2010
URRIAK 21 / AZAROAK 11



Nafarroako Bertsozale Elkartea 25

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Bertsoaroa 10:Maquetación 1 7/10/10 10:56 Página 4



# BERTSOAROA 2010

**Urriak 21, osteguna. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko
Areto Nagusia

## ETA TIRA ETA TUNBA GERRA KARLISTETAKO BERTSO BILDUMA
JOSEBA TAPIA

MUSIKA ERREZITALDIA

Gerra karlistetako hogeita bi kanta bildu ditu Joseba Tapiak bere disko berrian. Liberalek zein karlistek egindako bertsoak musikatu ditu, ezkutuan zegoen altxor bat entzulearengana hurbilduz. Umore zorrotza, kritika, damua, irainak eta ironiak askotarikoak dira alde batekoek zein bestekoek idatzitako bertso zahar horietan. Fanfarre kutsua du horietarako sorturiko musikak.

**Joseba Tapia** akordeoi diatonikoaren maila goreneko jotzaile eta konpositoreen artean dugu. Oso gazte zela Tapia eta Leturia bikote gogoangarria osatu zuen 1985ean Euskadiko txapelketa irabaziaz. Hainbat alor jorratu ditu trikitixaren maixu berritzaileak bikote aintzindariaz aparte: rock formatoak, folk hirukotea (Hiru Truku taldea Ruper Ordorika eta Bixente Martinezekin batera), eta hamaika kolaborazio hainbat musikari ezagunekin (Negu Gorriak edota Flaco Jimenezekin esate baterako). Ahaztu gabe lideratu zuen Zaldibobo taldea.

Koldo Izagirre idazlearen ondoan bere bakarkako bidea ibiltzen hasi zenetik bost lan eman dizkigu, zein baino zein bereziago, haien artean: *Apoaren edertasuna* (1998) eta *Agur Intxorta maite* (2001) Gaztelupeko Hotsakek atonduak.

Joseba Tapia [soinu txikia eta ahotsa]; Jokin Irungarai [perkutsioa, jazpana]; Ramontxo Vega [tuba], Mintxo Garaikoetxea [bonbardinoa]; Filipe aldako [tronpeta] eta Alain Martineau [saxoa].

**Urriak 28, osteguna. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko
Areto Nagusia

## BERTSO SAIOA
SAIOA ALKAIZA
AITZOL BARANDIARAN
AIMAR KARRIKA
ALAIA MARTIN
IÑAKI ALEMAN
AGIN REZOLA

AURKEZLEA: HELIOS DEL SANTO

Bertsolaritzak egun duen sasoi ona urte luzez egindako lanaren fruitua izan da. Berpizkunde horretan ezin garrantzitsuagoak izan dira bertsozale eta bertsolari gazteak. Azken Txapelketa Nagusian argi gelditu den moduan, taula gainean urte asko eman dituzten bertsolariekin batera, “gazte beteranoak” beren lekua ari dira egiten. Etengabeko belaunaldi aldaketa da, etorkizuneko bertsolaritzari bidea ireki diona. Saio honetan gazte horietako sei ikusiko ditugu taula gainean, betiko moldeari alderdi berritzaileak eransten dizkioten bertsolariak, egungo mundua ikuspegi berezi eta pertsonaletik kantatuko digutenak.

**Azaroak 4, osteguna. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko
Areto Nagusia

## BERTSO SAIOA
AMETS ARZALLUS
ESTITXU AROZENA
JON MAIA
AITOR MENDILUZE
XABIER LEGARRETA
UNAI ITURRIAGA

AURKEZLEA: AINHOA ARANBURU

Iaz urte berezia bizi zuen bertsolaritzak, lau urtetik behin egiten den Bertsolari Txapelketa Nagusiaren edizio berria izan baitzen. Abenduan final gogoangarria izan zen jendez mukuru zegoen BEC-en. Final horretako zortzi protagonistak aurtengo Bertsoaroan izanen dira. Bi parte dituen saio berezi batean eta zortzikotearekin batera, Lesakako final handian izandako lau bertsolari nafarrak egongo dira ere bai. Honakoa, final horiek Iruñera ekarriko dituen lehenengo saioa izanen da.



**Azaroak 9, asteartea. 20:00**
Iruñeko Udalaren Kultura Alorreko
Hitzaldi Aretoa, Erraldoien Txokoa

## URUMEAKO SORGINEN DEFENTSA IRUÑEKO TRIBUNALEAN
PATZIKU PERURENA

HITZALDIA EUSKARAZ
AURKEZLEA: KIKE DIEZ DE ULTZURRUN

Herri kultura eta ahozkotasunaren balioa ederki jasotzen duen liburua argitaratu berri du Patziku Perurenak, *Goizuetan bada gizon bat*. Ikerlari gisa jakin nahi izan zuen Mikel Laboak ezagun egin zuen Trabuko horren atzean zer zegoen eta historia hurbila eta kondairaren arteko bidaia ezin aberasgarriagoan abiatu zen. Liburu berriaz bai, baina beste gauza askotaz ere mintzatuko da idazlea, sorginen ahozko perla batzuk aipatu, kantatu eta errezitatuko ditu eta horien metaforak, sinboloak, esanahia, ingurua azalduko.

**Patziku Perurena** Goizuetan jaio eta hamabi urtez geroztik Leitzan bizi den idazle honek euskal liburugintzako altxor biziak utzi dizkigu, *Leitzako errege-erreginak* (1996), esaterako. Euskal kulturaz eta pentsamenduaz hamaika kontu ikasi ditugu dagoenekoz berarekin. Herri-jakindurian arakatu, nekazarien ahotik entzun, zaharren oroimenak harrotu... etziko kontuak atzo bildutakoak direla gogoratu. Hori da Patzikuren ildoa. Lehen urratsak poesian egin eta gero, *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993) bezalako lanetan erakutsi zuen herri-memoriaren arakatzaile aparta zela. Eta, tartean, baita pentsalari eta artikulugile polemiko samarra izaten ere bazekiela, *Marasmus femeninus* (1993) edo *Etorrerakoak* (1998) lekuko. *Ezer ez eta festa* (2006), *Dakiguna ikasten* (2007) eta *Goizuetan bada gizon bat* (2010) dira bere azken liburuak. Hizkuntza joria, aberatsa eta herrikoia erabiltzen du, lirikotasun handikoa. Filosofiaren gai sakonei aurre egiteari uko egin gabe izadia eta herri izaera nabarmentzen dira bere idatzietan.

**Azaroak 11, osteguna. 20:00**
Gurutzeko Plazako Institutuko
Areto Nagusia

## BERTSO SAIOA
MAIALEN LUJANBIO
JULIO SOTO
SUSTRAI COLINA
OSKAR ESTANGA
AITOR SARRIEGI
ANDONI EGAÑA

AURKEZLEA: AINHOA ARANBURU

Ohi bezala, Bertsoaroak luxuzko amaiera izanen du aurten ere. BEC-eko finalistak eta Lesakako finalistak taula gainean, propio prestatutako bertso saio berezi batean. Bertsolarien artean Nafarroako txapeldun gaztea, Zarauzko txapeldun handia eta lehen txapeldun emakumezkoa. Goi-mailako bertsolariak denak, txapelketatik aparte plaza askotan ibiliak. Gaurko eta biharko bertsolaritzaren erakusle, ikuslea gozarazten dakiten hitzaren artista apartak.







# BERTSOAROA 2010
21 OCTUBRE / 11 NOVIEMBRE

Nafarroako Bertsozale Elkartea

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala